

Galtzaundi

Tolosaldeko Herri Aldizkaria

10/12/17 | 335

	Hara, zergatik ez euskaraz? (V) Justizian
	Galtzaundi, ekitaldiz ekitaldi
	Siruliruli. Javier Navarro
	Intxurreko kastroko talaia

“Lau belaunaldi,
euskararekiko
lau **bizipen**”





Argitaratzailea: Galtzaundi Euskara Taldea.
Helbidea: Nafarroa etorbidea, 6-behea.
20400 Tolosa (Gipuzkoa)
Telefonoa: 943 655 004
Faxa: 943 654 983
e-posta: erredakzioa@galtzaundi.com
Webgunea: www.galtzaundi.com
Kordinazioa: Naiara Roldán de Aránguiz.
Erredakzio taldea: Felix Aiestaran, Amaia Goikoetxea Orbegozo, Igor Mujika

Kolaboratzaileak: Joseba Antxustegiartxe, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustin Arrieta, Antton Izagirre, Andoni Egia, Ibon Artola, Unai Igartua, Virginia Etxarri, Jone Otxoa-Aizpurua, Artubi elkarte, Bilgune Feminista, Amaia Etxexipia, Jone Gorostazu, Iosu Iztueta, Txarli Gesteira

Publizitatea: Amaia Doyague
Banatzaileak: Olatz Garmendia
Juankar Arregi
Idazkaria: Nora Olano
Maketazioa: Zigor Agirrezabala.
Diseinua: Zigor Agirrezabala

GOITK
Azala: Galtzaundi
Inprimategia: Antza.
Tirada: 5.000 ale
Lege gordailua: SS-906/91
Frankeo Itundua: 37/94

GALTZAUNDI aldizkaria doan banatzen da Tolosaldeko 23 herri hauetako denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Alto, Amezket, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa.

Galtzaundik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



TOLOSAKO UDALA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura eta Euskara Sailaren, Kutxa Fundazioaren, Tolosako Udalaren eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jaso du.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



KULTURA SAILA
Hizkuntz Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundutako argitalpena



Erreportaia: Lau belaunaldi, euskararekiko lau bizipen

Tolosan euskarak bizi duen egungo egoera aztertzeko datu eta ikerketa ugarietara jo genezake, baina Euskararen Eguna oinarritzat hartuta eta herritarrei datu hotzak aurkeztearen ideia alboratuta, eskualdeko bost pertsonaiei euren bizipenak mahai gainera ekartzera gonbidapena luzatu zien Galtzaundik.

8-11. orrialdeak

Tolosan, laurogei hamarkada hasieran rock-punk anarkoaren ildotik eman ziren lehen urrats haietan parte hartu izan zuten Lobo Electrico taldeko Shanti Iribar Dr.Magma (ahotsa) eta gero Jorge Sanz Perrolobo-k, Testiculos de Jehova, Tortura Sistemática eta Ruido de Rabia taldeetan.

Elkarrizketa: Lobo Eléctrico 16-18 orrialdeak

	Iritziaren leihoa: Eider Elduaen eta Ekain Larrinaga	4-5
	Normalizazioa: Hara, zergatik ez euskaraz? (V) Justizian	6-7
	Eskualdeko albisteak: Galtzaundi, ekitaldiz ekitaldi	12-13
	Kultura: Siruliruli. Javier Navarro	14-15
	Bidean: Intxurreko kastroko talaia	19

Salaketa ezere^{lean} geratzen denean...



Eider Elduaien Olazar
Tolosaldeko Bilgune feminista

Agintzen duten instituzioengatik babestua ez sentitzea. Herritar bat baino gehigok jaikingo du zer den hori, arrazoi desberdinak tarteko, eta are gehiago krisi garaiotan.

Babesgabetasun horrek gainera, heriotzera eraman ditu zenbait herritar, Cristina Estebanez Barakaldako 25 urteko emakumearen erailketa kasu. Behin baino gehiagotan jo zuen bikotekide ohiak; hainbatetan artatu zuten erietxean zauri eta ubelduren ondorioz, eta herrialdetik ere atera behar izan zuen, bere kabuz, erasotzailearengatik aldendu nahian. Salaketa jarri asmoz jo zuten senideek ertzaintzara baina erasotuak berak izan behar zuela salaketa jartzen zuena, bestela, auzia ezerezean geratuko zela erantzun zieten. Orain hila-bete jarri zuen bere erasotzailearen aurkako salaketa Cristina Estebanezek. "Arrisku ikerketa" delakoa egin zuen ertzaintzak; salaketa jarri aurretik bizitakoa kontuan izan gabe, itxura guztien arabera. Bi izan ziren hartutako neurriak: tarteka telefono deiak egitea emakumeari (zer moduz zegoen jakiteko) eta erasotzaileari urruntze agindua ezartzea (gerora jakingo zen bezala, inolako kontrolik ez zuen urruntze agindua). Udalak ere bazuen Barakaldoko herritarren kasuaren berri; asistentzia psikologikoa eskaini zioten emakumeari berdintasun sailetik eta etxe bat ere eskaini zioten herri-tik kanpo, honek uko egin zion. Ez zegoen bere ingurunea (senideak, lagunak, herria...) alboratzeko prest.

Zerbaitek huts egin due-la onartu dute instituzioek. Jaurlaritzako Genero Indarkeriaren Biktimen arretarako zerbitzutik barkamena eskatu dute baina baita auziari erantzuteko denbora nahikoa izan ez dutela gaineratu ere. Konpromisorik ez.

Gasteizen duela hilabete, prostituta gisa lan egiten zuen emakumea bortxatu zuten hiru gizonek. Estatu espainiarrean legez egoteko paperik izan ez arren, emakumeak ertzaintzaren gano jo zuen gertatutakoa salatzen. Usteko hiru erasotzaileak atxilotu zituzten segidan. Baina bortxaketa jasan zuen emakumeak Gasteizetik alde egitea erabaki zuen, antza, bere lege kanpoko egoeragatik kanporatua izango ote zen beldur. Emakumearen berririk ez dago egun, eta, hiru atxilotuen aurka abiatutako prozesua ez aurrera ez atzera geratu da. Uneotan, hiru bortxatzaileak aske daude.

Instituzioetatik isiltasuna.

Emakume asko dira erasotzaileak salatu dituztenak. Instituzioak dira ordea, salaketa horiek bideratu ez eta bortxaketak "dohakoak" izatea ahalbideratu dutenak edota emakume bat erail bitartean inolako kontrolik gabe erasotzailea lasaitasunean bizitzera eraman dutenak. Lehena hilda dago, bigarrenaren berririk ez da. Nor da erantzule?

Herri eskudunak, herri abegit^{tsu}ak

Urte guzti hauetan asko hitz egin da gai honi buruz. Hainbat hitz eta ideia irakurri eta entzun dugu akademiko, teknikari eta politikarien eskutik: etorkinak, diskriminazioa, integrazioa, bizikidetzak, kultur aniztasuna eta kulturartekotasuna, aniztasuna, herritartasuna, genero zeharkakotasuna, migrazio planak... horietako bakoitzak garapen kontzeptual zabala izan du eta ondo dokumentatua. Baina sarritan dokumentu horietan integratzen diren garrantziak garrantzia duen hitz bat ageri da: HARRERA. Erraz onartzen dugu, baina askotan "Harrera" esanahiaren osotasuna, gizatasun ikuspuntutik eta alderdi praktikotik, kontutan hartu gabe.

Harrerak hainbat esanahi izan ditzake: laguntza, babesa, egokitzea, onartzea, babestu, eta baita lege, araudi, ohitura, etab. emandako abantailak eta eskubideak eskatzea ere. Harrerak leku edo pertsona batekin abegitsu izatea esan nahi du aspaldidanik. K.a. II. mendean, atzerritarren arteko erlazioa nolabait erregulatzen zuen Hospitium izeneko, lege instituzioaren bidez. Bertan, bi komunitetako giza-banakoei eskubide eta betebeharrak adosten zituzten.

Azken batean, HARRERAZ hitz egiten dugunean, gertuko eta berehalako zerbaitez ari gara, ez dago distantziarako tarterik. Beraz, atzerritar pertsonen harreraz ari garenean, kontzeptuak erabateko indarra izango du, herrietara iritsitako etorkinen etorrerari erantzuteko aurrera eramango diren ekintzak zehazterakoan. Tokiko agintariak bideratuko dituzten jarduerak modu ezberdinetan moldatu beharko dituzte. Horregatik,

egokia litzateke lehen urratsa eraldaketa soziala eta gizartearen aniztasuna aitortzea. Horrela bakarrik justifikatuko baitira ezarriko diren harrera eta integrazio estrategia berriak.

Ez da erraza. Gure gizarteak ezagutzen genituela pentsatzen genuen. Baina orain etengabeko eraldaketan daude, hainbat jatorri ekonomiko, sozial, kultural... dituzten pertsonen iristearekin. Gainera, ez dugu ahaztu behar aurkitzen diren egoera juridiko desberdinak (irregulartasun administratibotik hasi, egoera erregulartzatuta dutenak edo errefuxiatuak, nazionalitatea lortzen ari direnetara). Pertsona guzti hauek, egoera juridikoa edozein izanik ere, erakunde, auzoko eta pertsonarteko harremanetan daude eta beraz, maila ezberdinetako harrera prozesuak emango dira.

Euskadin, 2002 geroztik, Eusko Jaurlaritzak bultzatutako atzerriko pertsonen harrera sarea daukagu, udalerrri batzuk, Gizarte Zerbitzuen zenbait mankomunitate edo Tokiko Garapen Agentziez osatua. Euskal sareak funtzio garrantzitsuak aurrera eman baditu ere, sistema mugatua da eta berrazterketa baten beharrean dago. Besteak beste, sarea diru-laguntzen menpe baitago eta 2010ean parte hartze berriei aukerarik gabe uzten zaielako. Gainera, saretik kanpo dauden beste hainbat udalek bizilagunen etorkinen harrera eta integratzerako ekintzak aurrera eramaten ari dira. Kasu guztietan egiten dena politikari eta teknikarien intuizioan oinarritzen da beti ere udalerrien erroka berri hauei erantzuna bilatzen, ahal den modu egokiarean



Ekain Larrinaga Muguruza
Udal mailako Migrazio teknikaria

Iturria HARRESIAK INFO, Harresiak Apurtuz (Euskadiko Etorkinei laguntzarako GKE koordinakundea) -en aldizkaria.

Euskadiko udalerrietan azken 10 urteetan bizi den aldaketa handiaren arrazoi nagusienetakoak, demografia eta esparru sozialari buruz ari bagara, iritsi den atzerriko biztanleria izan da (migrazio ekonomikoaren eskutik, asilo eta babesa edo familia elkartzetik, beste kasu batzuen artean).

Udalerrri horietako batzuen artan koordinazioa hobetzeko saiakerak egin arren guztiz beharrezkoa da ez langileen borondatepean dauden mekanismo argiak ezartzea. Gutxieneko hitzarmen bat beharrezkoa da Euskal Herrira iristen den edozein pertsona atzerritarri harrera prozesu homogeneo bat bermatzeko. Izan ere, jasotako harrerak bere bizitzan, integratze-prozesuan eta beraz, udalerriko kohesio sozialean, funtsezko papera izango baitu.

Udal Legearen (tokiko gaitasunen eta finantzaketa moduen garapena zehaztuko dituen) inguru-

ko eztabaidan azpimarragarria da, EUEDEK Euskadiko Udal Lege-rako Oinarriak (2010eko Martxoak) dokumentuan egiten dituen aipamenak, integratze prozesuetan herritarren eskubide eta betebeharren inguruan (VI-7 atala) eta udalerrien beharrezko esku hartzea migratze eta gizarte kohesio arloetan (VII-27). Eusko Jaurlaritza eta Udal-lekuek aukera hau aprobetxatu beharko lukete, lege izaera duen esparru bat ezartzeko, eremu honetan esku-hartzea bermatzeaz gain finantziaketa ere ahalbidetuko duena, benetako herri eskudun eta abegitsuak lortzeko.

Hara, zergatik ez euskaraz? (V) Justizian

Zenbat aldiz iritsi zaizkizu epaitegietatik agiri batzuk gaztelania hutsez? Zer eskubide dauzkagu halako egoeren aurrean? Aurreko aleetan, euskaldunok beste eremu batzuetan ditugun hizkuntz eskubideei buruz jardun dugu. Gaurkoan, eskubide horiek justizia arloan zertan diren ikusiko dugu.

Imanol Haro
UEMAko hizkuntz normalizatzailea

Zer hizkuntz eskubide ditugu erakunde publikoetan?

Aurreko aleetan adierazi bezala, Euskal Autonomia Erkidegoan, euskaldunok eskubidea dugu administrazioarekin euskaraz jarduteko eta administrazioa guri euskaraz zuzentzeko. Printzipio horri lotuta, eskubidea dugu justizia arloko erakunde publikoekin eta horien solaskideekin euskaraz jarduteko. Horrek honako kasu hauek lotzen ditu, besteak beste: epaiketa batean euskaraz deklaratzeko eskubidea, salaketak euskaraz jartzeko eskubidea, agiri oro euskaraz (ere) jasotzeko eskubidea...

Kasu praktikoetara etorrira, honako hau gerta daiteke: salaketa bat jartzera polizia etxera joatea eta salaketa jaso behar

duen ertzaina euskalduna ez izatea. Kasu horretan, ertzainekiko gainerako harremanetan bezala, herritarrak eska dezake beste ertzain bat jartzeko, administrazioarekiko harremana euskaraz gauza dadin.

Epaitegietatik iristen zaizkigun agiriak euskaraz eska ditzakegu, eta administrazioa derrigortuta dago eskaerari men egiten eta agiria euskaraz bidaltzera. Izan ere, erakunde publikoekiko harremanetan zehaztutakoak epaitegiekiko harremanetarako ere balio du.

Eta zer gertatzen da epaiketetan? Epailak, abokatuak, fiskalak eta beste guztiak euskaraz ez badakite ere, herritarrak euskaraz egin dezake deklarazioa epaiketan, eta hori nahiko ohikoa da gaur egun. Horretarako, epaitegiek interpretariak eduki behar dituzte, herritarrak euskaraz esandakoa itzultzeko eta euskara ulertzen ez dutenek deklarazioa ulertzeko. Begien bistakoa da kasu horretan euskaraz jarduten duena eta gaztelaniaz ari dena ez direla parez pareko egoeran egongo: epaile erdaldunari zuzenean iritsiko zaizkio herritarren hitzak, eta euskaldunak interpretariaren bitartekaritza erabili beharko du epailearen gana iristeko.

Beste bide guztiak itxita daude oraingoz. Izan ere, herritar batek prozeduran euskaraz aritzeko eta euskara hutsezko epaiketa izateko eskubidea aldarrikatu duenentan epaileek ez diete jaramonik egin eskaerei, eta prozedurarekin aurrera jarraitu izan dute.

Baina, zer gertatzen da hori betetzen ez dutenean?

Aurreko aleetan adierazi bezala, eskubide batzuk aitortuta izan arren, errealitatea oso bestelakoa izaten da sarritan. Urraketak eguneroko ogia izaten dira, eta, zoritxarrez, Hizkuntza Eskubideen Behatokiak urtez urte salatu duenez, justizia da hizkuntz eskubideen alorrean dagoen puntu beltz nagusietakoa. Kasu askotan, justizia ez da berbera euskaraz komunikatzea aukertzen dutenentzat edo gaztelaniaz aritzen direnentzat.

Urraketak salatzeke zilegita-



sun, berriz, eduki badugu, eta halakoak egin ezean zaila izango da euskaraz eremu horretan ere aurrera egitea. Kexak Elebidera (012) edo Hizkuntz Eskubideen Behatokira (902194332) bidera daitezke. Internetez ere bidera daitezke kexak.

Egoera kafiarrak

Euskaldunen hizkuntza eskubideak banaketa juridiko-politikoekin zenbateraino lotuta

dauden ikusteko, oso adibide argigarria bizi izan genuen De-moen aurka Baionan egindako epaiketa batean. Hego Euskal Herriko herritarrei onartu zieten euskaraz hitz egiteko eskubidea, baina Ipar Euskal Herrikoei ez. Arrazoibidea honako hau izan zen: Ipar Euskal Herrian ez bezala, euskara ofiziala da Hego Euskal Herrian, eta, horregatik, bertako herritarrak hizkuntz eskubide batzuen jabe ziren.

ANTZA



Baserriko produktu naturalak
Mahala baserria • LEABURU
Tel.: 943 673 499



Osagaiak
Desarrolloak
Instalaketak
GUDARI KALEA 15-BEHEA TEL.: 943 650 199
TOLOSA (GIPUZKOA) FAXA: 943 653 916



INDUSTRIARAKO
HONIDURAK
Iparragirre auzoa, 1-behea
20400 Tolosa
Tel.: 943 673 726 • Faxa: 943 673 462



Mertzeria eta
konponketak

Zumalakarregi etorbidea, 7
TOLOSA



Arostegieta kalea, 2 - Tolosa

Ramon Labaien, Iñaki Azaldegi, Elene Arandia, Imanol Irazustabarrena eta Iñaki Artola

“Lau belaunaldi, euskararekiko lau bizipen”

Tolosan euskarak bizi duen egungo egoera aztertzeko datu eta ikerketa ugarietara jo genezake, baina Euskararen Eguna oinarritzat hartuta eta herritarrei datu hotzak aurkeztearen ideia alboratuta, eskualdeko bost pertsonaiei euren bizipenak mahai gainera ekartzera gonbidapena luzatu zien Galtzaundik.

Naiara Roldán de Aránguiz

Bost komunikatzaile hauen artean adin, herri, errealitate linguistiko, esperientzia pertsonal eta garai diferentzia egon badago baina bostek euskararekiko grina eta borroka erakutsi zuten abenduaren 3an Tolosako Udaletxeko Pleno Aretoan antolatutako “Lau belaunaldi, euskararekiko lau bizipen” mahai-inguruan.

Euskararen erabilpena

Eztabaidari hasiera emateko Amaia Doyague, Galtzaundiko normalizazio arduradunak, moderatzaile lanetan, hizlarietara Tolosa herria euskararen erabilpenari dagokionean nola ikusten zuten galdetu zien. Ramon Labaien Donostiako alkate ohiak hitza hartu eta konparazioak konparazio Donostiarekin alderatuta, bera egun bertan bizi da, Tolosan euskarak aurrera egiten duela aitortu zuen.

Baikortasunez hasi bazen ere egoerari eragozpen bat aurkitu zion, lehen eztabaidari sua

emateko baliagarri izan zena. Labaienen iritziz “gehienok ‘castellanoz’ pentsatzen jarraitzen dugu; mekanismoa daukagu, ‘castellanoz’ pentsatu eta hitza ‘castellanoz’ ateratzeko”. Horren aurrean, nahita ez “denok indarra egin behar dugu euskaraz pentsatu dezagun”; euskararen erabilpenaren arrakasta euskal pentsamenduan datza horrenbestez.

Mahai gainean plazaratutako aurreneko gai honen aurrean Iñaki Azaldegi udal euskara teknikariak ondorengo aitortu egin zuen: “gazte denboran luzez gaztelaniaz aritu ginen, euskarari buruz baina gaztelaniaz. Kontzientzia bagenuen baina urteak pasa genituen euskararen alde geundela esaten eta benetan erdaraz bizitzen”. Azaldegiaren gazte garaian Tolosan koadrilarik ez zen euskaraz aritzen.

Egun egoera bestelakoa dela iritzi du Iñaki Azaldegi, “belaunaldi berria euskaraz pentsatzen badator, zati bat

behintzat”. Izan ere, egun ikasketak euskaraz egiten dira, Tolosan ia %100a D ereduan ikasten du, askok gainera unibertsitate ikasketak ere euskaraz jarraitzen dituzte.

Elene Arandia, abeslari eta Gizarte Zientziak eta Komunikazioko ikaslea, baieztapen honekin bat etorri eta bere inguruan gazteek elkar komunikatzeko euskara erabiltzen dutela zehaztu zuen, “gaztelaniak azken urte hauetan bere garrantzia hartu badu ere”.

Imanol Irazustabarrena eta Iñaki Artola Orixeko ikasle alegitarrek bestelako ikuspuntua utzi zuten agerian; Alegian inguru erabat euskaldunean murgildurik daudela aitortu zuten eta baita egoera zehatz baten berri eman nahi izan zuten ere. “Kuriosoa da kanpotarrak etortzen direnean euskaraz segituen ikasten dutela”. Adibide bat zehaztearren Iñaki Artolak pilotan entrenatzen dituen bi ume afrikar lehenengoz agertu zitzaizkionean lehen hitza

gaztelaniaz egitea otu zitzaion, umeek ezer ulertu ez eta euskaraz mintzatzerakoan ‘bai-ez’ erantzuteko gauza baziren. Koadriletan ere guraso erdal-dun lagun ugari dituztela esan zuten eta hauek erabat euskaraz egiten dutela zehaztu ere.

Migrazioen kasuan Iñaki Azaldegi jakitera eman zuen seme-alabak euskalduntzen direla baina baita ondorengo gaineratu ere: “ez dugu lortzen gurasoak euskalduntzerik”.

Gazteen ikuspuntua helduei buruz

Elene Arandiaren ustez helduek euskararekiko duten jarreraren denetarik dago bere inguruan: “batzuk nahiko komodoak dira, beti erdarara jotzen dute eta beste batzuk saiatzen dira etxean, euren inguruan eta baita kanpoan ere euskaraz hitz egiten”.

Imanol Irazustabarrena Elenerekin bat etorri eta “edadesuagoetan kasi euskara gutxiago hitz egiten da gurean

Euskara eskolan. Bilakaera 20 urtetan

- Azken 20 urtetan A eredu matrikulaturik zeuden haurrak %43tik 3 ikasle izatera pasa dira.
- Gaur egun B ereduaren 42 ikasle daude Tolosan.
- D ereduak gaur egun 4.500 ikasle ditu matrikulaturik. Ia %100a.

baino" iritzia plazaratu zuen; gurasoen arteko elkarrizketak seme-alabak tartean ez daudean askotan erdarara jotzen dutela uste du gazteak. Berak entrenatzen dituen umeen futbol partiduetan argi ikusten du helduen arteko elkarrizketak erdaraz izaten direla, ume bat gerturatzekoan euskarara jo eta umeak alde egiterakoan berriro ere erdaraz mintzatzen hasten dira. Egoera honen aurrean ondorengo iritzia azaldu zuen Imanolek: "ez dakit automatismoa den, borondate falta edo zer?".

Iñaki Azaldegi egoera honen inguruko datu zehatzak plazaratu zituen: "haurra tartean mintzakide denean, helduak bikoiztu egiten du euskararen erabilera". Are gehiago, helduen artean 4tik 1ek baino ez du euskaraz egiten. Zonaldearen arabera gainera datuak ezezkorrak dira: "erdaldun-

tzen goazen neurrian joera hori areagotzen joaten da, zona euskaldunagoa izanez gero hizkuntzarekiko leialtasun gehiago mantenduko da".

Gazteek helduei begiratzen badiete ere Ramon Labaienek belaunaldi berdinari begira jarri eta euren semeen kasua hizketagai azaldu zuen: "ailegatu gara momentu batera semeek erdaraz egiten dutela, baita bere aitarekin ere, joko, tendentzia hori dago; ez dakit snobismoa den; nire arma bakarra testamentua izaten da", honek ezinbestez entzuleen farrak eragin zituen.

Mahaikide guztiek begiak gaur egungo gurasoengan jarri zituzten; 30-45 urte bitarteko horriengan. Imanolek gogora ekarri zuen adin zehatz batean seme-alaba guztiok gurasoak imitatzeke joera izaten dugula; gurasoak erdaraz arituz gero arriskutsua izan daitekeela, alegia.

Hizkuntzen prestigioa

Hizkuntza batzuek besteek baino prestigio gehiago esku-ratzen dute historiako garai zehatz ezberdinetan. Hori dela eta, Iñaki Azaldegiaren ustetan "kontzientzia linguistikoa" handia behar da prestigioak esaten duena ez imitatzeke.

Gazte alegitarrek gazte-hizkerari dagokionez haiek betidanik hika erabili izan dutela aitortu zuten; gaur egun ordea



joaera handia dago, gazte hizkeran gaztelania sartzeko. Honen aurrean gizarteak lana baduela ere zehatz zuen euskara teknikariak; "Tolosaldeko herrietako hizkuntza, gatz eta piperduna, prestigioatu behar da". Garai batean hizkera horri atxiki zitzaion 'baserritar' kuxua oraindik orain mantentzen da eta horri aurre egin eta kontrara saiatuz prestigioa eman behar zaio". Gehiago gaineratu nahi izan zuen Azaldegi: "zuen hizkuntza hori eredu garria da, horretara heldu behar gara Tolosarrok".

Herri zehatz batzuetan hika berreskuratzeko saiakera hasi dituztela gogora ekarri zuten mintzakideek, nesken artean ere hikaz, mutil erara, hasiak dira komunikatzen.

Euskal elebidunak

Edozein hizkuntzatan aritzeko lehenengo gauza hizkuntza ondo menderatzea izaten da, gizakiok errazkerira lerratzten gara, kostata hizkuntza batean arituz gero errazago menderatzen dugun hizkuntzara ahal bezain laster pasako gara eta. Hori dela eta, Azaldegi eskutakoaren arabera "inportanteena euskal elebidunak, euskal eleantizak lortzea da; euskaraz beste hizkuntzetan baino hobeto egingo dutenak".

Aldeak ikastetxez ikastetxe

Tolosako ikastetxeak ordezkaturik zeuden pleno aretoko hizlarietan; eta ikastetxez ikastetxeko ikuspuntua hizlariz hizlari ezberdina ere bazen euskararen erabilpenari da-

gokionean. Ikastetxe zehatz batean euskara gutxiago entzuten dela ikasleen ahotik, ikasleen jatorria bestetik...

Errealitatea errealitate Iñaki Azaldegiaren hitzetan ikastetxe batzuek besteek baino hobeto lortzen dute euskararen erabilpena kalera hedatzea, horren atzean ideologia ere egotea posible da mahaikide honen esanetan.

Etorkizuna

Euskararen etorkizunari dagokionean Ramon Labaienek euskararen alde errebindikazio nahikorik ez dagoela salatu nahi izan zuen, diru gutxi erabiltzen dela euskararen alde. Gazteak ordea baikorkiago azaldu nahi izan ziren; Elene- ren ustez herritarrek argi dute ez dutela euskara galtzerik nahi. Imanolek iritzia berdineko adierazpena luzatu zuen: "jendea geroz eta gehiago ari da kontzientziazten euskara he- men galduz gero, beste inon ez dela hitz egingo".

Hala ere, hezkuntzari dago- kionean guztiek azpimarratu nahi izan zuten euskara batua- ren zuzentasun estuak, Eus- kaltzaindiaren arau zehatzek, EGA bezalako agiriekin eta soilik gramatikaz jositako euskara klaseek erabilpenari mesede gutxi egiten diotela. Azalde- gi gazteen teoria indartu egin zuen: "gauden egoeran, hizkuntza minoritario eta mi- norizatu izanik, soziolinguis- tikari garrantzi gehiago eman behar litzaioke, horrek kont- zientzia sortu eta erabilpe- na zabaltzen duelako". Gaur egungo akatsetako bat, eus- kaldunak sortzen doazela da baina ez euskaltzaleak.

Ezbairik gabe Euskaltzaindiak egindako lana txalotu zuten; La- baienen esanetan "euskara ago- nian zegoenean haiek salbatu zuten" baina arauak zehaztuta- ko bidea estuegia ezin dela izan azpimarratu nahi izan zuten solaskideek, "gehiagi estutze- koan zalantzak eta konfiantza falta sortzen delako".

Euskararen erabilpena. Datuen bilakaera

- Azken 30 urtetan Tolosan euskararen erabilpena hirukoiztu egin da.
- Gaur egun 14 urte arteko haurren euskararen erabilpena %68-70ean dago eta gazteena %50ean.
- 20 urtetan aurrerapauso handia eman da, baina azken 10 urtetan Tolosan euskararen erabilera gel- dituta dago.
- Dereduan matrikulatutako ikasleak ikaragarri gora eginda ere kaleko erabil- penean ez da antzeman.

Mahai inguruari amaie- ra emateko Labaienek hitza hartu eta gazteei zuzendu zi- tzaien: "euskara bizirik dago; hizkuntza definizioz aldakorra da; aldatuko ez balitz ez litza- teke bizirik egongo; horregatik zuek egin behar duzue XXI. mendeko euskara berria".

URDAIKARIAK
Altuna
HARAKINAK

Korreo, 39 20400 TOLOSA
Tel.: 943 671 414 Gipuzkoa

IG
GORRI

Paper manipulaziorako
makina eraikuntza

Konponketa
eta mantenimenduak

Apata industrialdea.
Baratzondo D 26. Ibarra
Tel.: 943 671 590.
Faxa: 943 673 916

SANZ
arraindegia

Tel.: 686 98 21 74
943 65 17 85

Gozotegia Okindegia

ECEIZA

P. Gorosabel, 34 - Telf. 943 655 161 - San Francisco, 8 - Telf. 943 651 916

Galtzaundi, ekitaldiz ekitaldi

Galtzaundi Euskara Taldeak kultur ekitaldi ugariren bitartez eman nahi izan dio amaiera 2010. urteari. Alde batetik Euskararen Eguna-ren inguruan antolatutako ekintza ezberdinen bitartez (Maddi Oihe-nart eta Juanxo Zeberioaren kontzertua, Eskerrak Zuri aipamen berez-ien ospakizuna, euskararen inguruko mahai-ingurua...) eta bestetik Galtzakomik Komiki Lehiaketaren sari banaketa ospatuz.

Erredakzioa


Galtzaundik euskalgintzarekin duen konpromisoa berriro ere agerian utzi nahi izan du, beste-lako elkarte eta norbanakoak ere abiapuntu hartuta. Zehazturiko ekitaldi hauetan parte hartu ahal ezin duzuenentzat hauen berri ematen dugu jarraian.

Eskerrak Zuri

Abenduaren 3an, Udaletxeko Pleno Aretoa lepo bete eta Galtzaundi Euskara Taldeak kirola, kultura, gizatasuna eta euskararen alorrean egindako lan isila-gatik Ibarako Emakume Sokati-ra Taldea, Tolosaldea Sahararekin Elkartea eta Tolosako Buruhandi eta Erraldioen Konpartsa saritu zituen; Ohorezko Aipamena, ber-ritz, Mattin Amundarain euskal-tzaleari eginez.

Sortu berria den Ibarako Emakume Sokatira Taldea ai-patu zuen Galtzaundik kirol arloan erakutsi duen gogo, indar eta ondo egindako lanagatik. Gizatasun arloan or-dea Tolosaldea Sahararekin Elkartea omendu zuen "Sahara herriari elkartasuna erakutsiz, urte guztian zehar ekimen desberdinak antolatzeagatik. Saharar herriak pairatzen duen egoera politikoaren eta giza eskubideen urraketen ingu-ruan informatzeko eta babesa emateko lanean aritzeagatik". Kulturari dagokionez, Tolosako Buruhandi eta Erraldioen Konpartsa aukeratzearen zergatia "pertsonaiak berpiztu eta To-losako kaleak alaitzearen" arra-zoia azpimarratu zen.

Ohorezko Aipamena berriz Mattin Amundarainek jaso zuen iazko omenduaren esku-tik; Joxe Agirre fraile benedik-tarrak Amundarain euskaltzale amezketarrari eskura eman egindako lan isilagatik, besteak beste "Arrasate Euskaldun De-zagun euskara elkartea sortze-ko hazia jartzeagatik, Ikastola sortzeko mugimenduan ibil-tzeagatik, herritarrei gau es-kolatan euskara irakasteagatik eta gaur egun oraindik orain Galtzaundiren Mintzalaguna bezalako egitasmoan parte hartzeagatik". Mattinek saria umiltasunez eta hunkiduraz jaso zuen oraindik orain euska-raren alde lana egin behar dela azpimarratuz.



Abenduaren 10ean, ostiralean, III. Galtzakomik Komiki Lehiake-taren sari banaketari ekin zitzaion Ibarako Benito Izagirre Kultur Etxean, aurkeztutako lan guztien erakusketa inauguratzearekin ba-tera, 100 lanetik gorako esposizioa, alegia.

Hiru kategoria ezberdinetan sail-katutako Joseba Antxustegiexarte, Juanba Berasategi, Iñaki Martia-rena 'Mattin', Iñaki Epelde, Jose Luis Longaron eta Kike Amonarriz epaimahaiak lanen balorazioa egi-nez komikiak saritu egin ziren, arte adierazpen hau zahar zein gazteei zuzendutakoa dela gogoratuz.

12 urtetik beherakoen artean Paulo Albuak Gari Antxustegie-

txartek, Leyre Reyk, Ibai Aranak eta Aitzol Garrok eskuratu zituzten bina komiki lortzeaz gain marraz-kearako materiala ere berea egin zuen bere lanak azaldutako 'fresko-tasun eta naturaltasunagatik'. 12-18 urte bitartekoan, Markel Galbetek bigarren saria berea egin bazuen ere lehen postua Pablo Azurraren-tzat izan zen 'erakutsitako ausardia-gatik'.

Helduen kategorian Matxalen Lonbera bigarren sariduna izan zen 'Barnean' txuri-beltzeko lan intimis-tagatik eta 600 euroren irabazlea Javier Navarro aukeratu zuten epai-leek ondorengo orrialdetan gozatu dezakezen 'Siruliruli' lan esperi-mentalagatik.

Beti Alai
galtzaundi

Garaian garaiko janariak
eta arraikietan bereziak

Tel.: 943 671 920
Errementari kalea, 16 • 20400 Tolosa

ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

Foruak, 5-bis • TOLOSA
Tel.: 943 652 712

Beatriz
Dekorazioa
Donostia - Tolosa

- Gortinak
- Edredoi nordikoak
- Mantak
(bat erositako beste bat opari)
- Ohazalak
- Alfonbrak etab.

Donostia
San Martin, 16
943 425 886-943 420 187

Donostia
Garibai, 8
943 420 259-943 430 947

Tolosa
Rondilla, 11
943 670 615-943 671 149

Arteka
ESKULANAK

Nafarroa etorbidea, 10
TOLOSA
Tel.: 943 655 577

Siruliruli

Javier Navarro. 18 urtetik gora 1. saria. III. Galtzakomik Komiki Lahiaketa

SIRULIRULI



Lobo Electrico, Otsoaren rock auhen bere koa

Tolosan, laurogei hamarkada hasieran rock-punk anarkoaren ildotik eman ziren lehen urrats haietan parte hartu izan zuten Lobo Electrico taldeko Shanti Iribar Dr.Magma (ahotsa) eta gero Jorge Sanz Perrolobo-k, Testiculos de Jehova, Tortura Sistemática eta Ruido de Rabia taldeetan.

Felix Aiestaran


Gaur egun, Lobo Electrico taldean Iker Lopez Canseco Iki Peligro (gitarra) eta Iñaki Guantxe-rekin (bateria) batera ari dira. Black Sabbath, ACDC edo The Cult tankerako doinu zikin eta indartsuetatik edanaz, berezko rock sendoa bildu dute bere azken Artefactos Magicos diskoan. Demon eskuetan utzi dizkigute magia darien jostailu lehergarriak. 2004an ¿Has visto al lobo electrico? argitaratutako lehen lanarekin Japoniara ere iritsi ziren. Bere musikaz gozatu egiten dute eta hori kutsatu egiten diete bere entzuleei zuzeneko emanaldietan. Urtarrilaren 5ean, Anoetako Cheyennen rock-aren gailu musikal magikoa oparizatutako Errege Bezpera gauean. Solasean, euskaraz gustura aritzeko aukera izan dugu Iker, Shanti eta Jorgerekin batera.

Zer dela eta jartzen diozue ezizena zuen buruoi?

(Shanti Iribar) Irudi bat hartu eta joko bat da, norbere buruari ezizena jartzearena...

Aurretik ere baduzue ibilbide musikala. Egin dezagun historia pixka bat...

(SI) Punk musika entzuten



"Gure mezua honako hau da: egin ezazu zeuk zure artefaktu magikoa, guk gurea egin dugu."

genuen eta halako batean, Lamberto eta Joxi Ubeda elkartuta Tortura Sistemática taldea osatu genuen. Ez genuen ia ezer, baina ilusio handiaz aritzen ginen. Laurogeiko hamarkada oso bizia izan zen: Gaztetxeak. Teknika gutxi baina gogo handia genuen eta kontzertu pila bat izaten genuen. Hortik, Tortura Sistemáticarekin urtebete egin ondoren, 1985ean Ruido de Rabiara pasa ginen. Joxik musika landuagoa nahi eta Bukaera taldera pasa zen. Guk doinu zaratatsuagoak nahi genituenenez Ruido de Rabia sortu genuen.

(Jorge Sanz) Bukaera hasi nintzen Joxi Ubedarekin. Mugida handia zegoen kalean eta garai gogorak ziren. Hauek 83an edo

Testiculos de Jehovarekin hasi zirenean, punka letra dibertigarriekin egiten zuten. Tortura Sistemática bihurtutakoan hitzak ez ziren horren dibertigarriak.


Zein zen Ruido de Rabia taldearen helburua?

(SI) Ruido de Rabiak zarata atera nahi zuen. Bere ideologia nahikoa anarkista zen. Protesta egin nahi genuen, esateko era desberdin batez.

Nola sortu zen Lobo Electrico?

(JS) Ruido de Rabia berez bukatu zen, '85etik zortzi bat urte egin ondoren. Musika utzita ere egon nintzen. Iker, Shanti eta... bildu ginen 1999an eta Lobo Electricoren ibilbideari ekitea

ZETA
MUNTAKETA
ELEKTRIKOAK
Usabal z/g - 23. postakutxa
20400 TOLOSA
Tel.: 943 672 728
Faxa: 943 673 219


kutxa


ARTE
TAILERRA
HAURRAK ETA HELDUAK
Matrikula zabalik
Tolosa - Kale Nagusia, 16
Tif. 677 340 685

ZABALA
DESGUAZEAK
KUDEATZAILE BAIMENDUAK
EU2/111/04

BEOTIBAR INDUSTRIALDEA, 18 - BELAUNTZA
TEL/FAXA: 943 671 790 -
MUGIKORRA: 696 593 347

erabaki genuen. Batez ere, musika, gustuko zerbait egin nahi genuen. Alegiako lokal batean entsatzen hasi ginen. Duela hiru urtetik hona Donostian biltzen gara.

Zer da zuen musika?

(JS) Rock and Roll-a da.
(Iker Lopez) Rock-a musika da, baina bizitzako jarrera ere bada.

Zein disko atera dituzue?

(JS) Bonbereneako disko-bilduma batean parte hartu genuen 2002an. Tartean single-a grabatu genuen eta 2004an Has visto al lobo eléctrico atera genuen. Lau urte erdi geldirik egi genituen. Tartean Lander bateria joleak utzi behar izan zuen eta Trintxerpen bilatu genuen bateria jolea.

Nola osatzen dituzue kantak?

(IL) Denon artean osatzen ditugu kantak. Ez dugu mekanika jakinik sortzeko. Hitzak Shantik egiten ditu.

Zergatik eta zeinentzat jotzen duzue?

(SI) Hobeto bizitzeko, bizitza dibertigarriagoa egiteko jotzen dugu. Entzuleari guk egiten dugunetik zerbait iristen bazaio, asko da.

Zer dela eta kantatzen duzue erdaraz?

(IL) Gure artean erdaraz hitz egiten dugu eta hitzak halaxe ateratzen zaizkigu.

(SI) Ez dugu atea itxita, euskaraz kantatzeko. Erdaraz irakurtzen eta idazten ohituta nago.

Entzuleei zer eman diezue eta zer jaso izan duzue?

(IL) Energia eman eta jaso izan dugu.

(JS) Ateak zabalik izan ditugu toki askotan. Horrenbeste talde egon arren emanaldiak egin eta grabatzeko aukera izan dugu. Hilean behin jotzen dugu. Nahi izan dugulako egon izan gara geldirik.

Zein emanaldi duzue gogoan?

(SI) Japonian egon ginenean 2004an, nahikoa berezia izan zen... Gure antzekoak dira.

(JS) Behin, Mendigorritik deitu ziguten. Bertara joan ginenean, herriko plazan jo



b e h a r
genuela esan
ziguten. Guk badugu barruan jotzeko ekipoa, baina bertan ez zegoen plazan jotzeko musika ekipo egokirik. Iruñera joan, lagun batzuei kantatzeko ekipoa eskatu eta kasinoan jo genuen aitona, biloba eta familia osoez betetako ikuslego baten aurrean. Emanaldia oso ondo atera zen.

(SI) Kantuak osatuta bagenituen eta diskoa osatzeko momentua lana egin ondoren iritsi da. Diskoa leherkaria izan daitekeen artefaktua da eta bestetik ere magia bada: musika magia da. Diskoaren azalean, zailtasunak gainditzen laguntzen duen

(SI) Txorizoa eta guzti oparitu ziguten...

Rock-a musika da, baina bizitzako jarrera ere bada.

Tolosan oso gutxitan jotzen duzue, ezta?

(JS) Bai, egia da Tolosan oso gutxitan jo izan dugu. Bonbereneaz aparte ez dago aukera handirik. Ea, Udalak edo aukera ematen digun Plaza Berrian jotzeko!

(IL) Bolada batean askotan jotzen genuen Bonberenean,

Ganesha jainko mantra azaltzen da. Gure mezua honako hau da: egin ezazu zeuk zure artefaktu magikoa, guk gurea egin dugu.

Zuen diskoan Antinoo moduko balada xamurra ere azaltzen da...

(IL) Badugu gure bihozñoa...

Zein da musikaren egoera Euskal Herrian?

(JS) Beste inguruekin alderatuta Euskal Herrian Gaztetxeak direla eta musika taldeek jotzeko aukera askoz handiagoa dute.

(IL) Areto txiki asko dago eta zirkuitua lehen bezain handia ez bada ere, beste tokietan baino askoz hobeto gaude.


(SI) Hego Euskal Herrian dago zirkuitu hori, Ipar Euskal Herrian ez dugu inoiz jo.

Musika mundua asko aldatu da SGAE dela edota Internetetik musika jaitsi daitekeenetik...

(JS) Sociedad General de Autores delakoa, lapur hutsa da. Disko etxe handiek heuren negozioa galdu egin dute. Dirua irabazten badut hobe, baina nire lana interneten bidez zabaltzen bada, hobe. Musikariontzat internet oso ona da. Internet beste artefaktu magikoa da.

Zer harrera izan du Artefactos electricos diskoak?

(JS) Diskoak harrera ezin hobe izan du. Egia da 1.000 CD eta 500 binilo besterik ez dugula atera, baina dagoeneko erdiak saldu ditugu. Diskoen salmentua oso gaizki dagoela kontuan izanik, oso pozik gaude saldu dugun disko kopuruarekin. Hemendik gutxira beste edizio bat egin beharko dugu.



Bidean Intxurreko kastroko talaia

Gaurko ibilbidea Albiztur herrian hasiko dugu, bertan kotxea non utzi badago eta mendi bueltatik itzulita, nahi izanez gero, non bazkaldu ere bai. Plazatik gorako kamioitik abiatuko gara, marra zuri gorri batzuk jarraituz. Etxe berri batzuk ezkerrean utzi, aurrerago Armuño baserri aldamenetik pasa eta Tolosa-Azpeitia (GI-6324) errepidearekin egingo dugu topo. Gaiztarro baserri parean kontuz-kontuz gurutzatu behar da bestaldera, marrak bistan daude, bi gezi ere bai, Agerre Handi eta Agerre Txiki izenak daude idatzita, hortik jarraitu. Asfaltoan aldapa gora hartuko dugu, trafiko handirik ez da izaten baino erne joatea komeni da.

Oinez 500 metro eginak ditugunean, goiko aldean Agerre Txiki baserria ageri zaigu, ez da inor bizi bertan. Beheko aldean, ezkerre-

ra, Agerre Handi (Agerre deitzen diote herritarrek), han bai, gu bagatozela somatu orduko oiloak korrika eta zakurrak zaunkaka hasiko dira. Aurrerago, horma zuri zuriak eta teilatu gorria duen etxe itxurako ur-depositoaren ondotik pasako gara.

Bidegurutzetik kilometro bat daramagunean beste eraikuntza txiki bat, garai batean Beitiko borda zena, orain kaletar batzuk etxe bezala txukunduta daukate. Asfaltoak hemen errebuelta zabal bat egiten du, guk ordubeteko joan etorria egingo dugu aurrez aurre daukagun pistatik. Egia esan, ez da ordu laurdana baino askoz denbora gehiago behar bide erosotik zabalgune batera iristeko, bidea estutzen den gunetik 300 metro zeharka egindakoan, azpialdean, nabarmen ageri dira

Iosu Iztueta
Bidaiaia

izei enbor erraldoiak, Gipuzkoako zuhaitz altuenak daude hemen.

Douglas Izei hauek, 55 metro luze dira. Gauden lekuan egonda ez dirudite hain altuak direnik, baino bide txiki bat hartu eta arbol ipurdiraino jaisten bagara, handik bai, lepoa asko okertu behar da zerurantz azken muturrak amaiera non duten ikusteko. Izei lodienak lau metroko gerri buelta badu gutxienez. Nik beti Albizturko lurretan daudela pentsatu izan dut baina lagun batek Tolosako lurak direla ziurtatu dit... saiatuko naiz hurrengo baterako mugariak non dauden baieztatzen!

Asfaltoraino bueltan etortzeko, putzu bat edo beste saihestu beharko ditugu berriro, dena den aurrerantzean oinetakoak asko zikindu gabe ibilbidea jarraitzeko moduan izango gara. Goazen ba aldapa gora! Udazkeneko orbel eta pinu orratzek asfaltoaren beltza gorritua dute, pago ederrez jantzia dago Mareagain izeneko dugu aldapa handirik gabeko bidetik. Telebista antena gehienak bezala honako hau ere kokapen estrategikoan dago, ondorioz, bista ederreko lekuan. Gainez gain doan pistatik eskuin aldera begiratuta Ernio eta Gazumeko perfilean Zelatungo lepoa nabarmentzen da. Ezker aldera berriz, Txindoki eta Aralar mendikatea ia

Hego haize epeletik izotzera, hotzetik berriro eguraldi goxora, horrela gabilta udazkeneko azken txanpan.

oso osorik ikusteko moduan gara, zenbat era aurrerago garbiago.

Alambre itxiturak bereizten ditu belardia eta basoa alde banatan, gaur zeropetik egon da termometroa goizean goiz eta izotza egin du, eguerdia den arren egutera eta laiotza alambre horrek berak bereizten dituela dirudi.

Bertize Geodesikoaren aldamenetik pasa eta 200 metro aurrerago Intxurre mendi gailurreko buzoia, 765 metro dio altzairuzko txapatxoan. Halere, zuetako gehienontzat Intxurre izenak garai bateko kastroa (2400 urte k.a.) ekarriko dizue gogora. Duela urte batzuk Aranzadi Zientzia Elkar-teak indusketa lana luzeak eginak ditu bertan baino egun ezer gutxi bereizi liteke han.

Ordu pare bat egin ditugu Albiztur herritik honaino baina ordu bete nahikoa izango dugu jaisteko. Hango jatetxeren baten bazkaltzeko asmo izanez gero, juxtu babarrunak heltzean behar duten adina denbora behar izan duzue Intxurrera joan etorria egiteko! On egin.

irakurri entzun Ikusi

Joan
Patxi Zubizarreta

Uztaila amaiera da Lisboan eta Mariok dei bat jaso du gauerdian. Emakume baten ahotsa da, frantsesez, João anaia gaztea Santa Grazin larri dagoela jakinarazi diona. Eta Mariok zer egin erabaki beharko du: joan, ez joan, edo...

Joserra Senperena piano jotzaileak, liburuaren atal bakoitza gogoan, bost fado grabatu ditu. Thomas Canet argazkilariak, atal horiek eta Senperenaren musika batuz, Granada, Lisboa eta Zuberoan grabatutako bideo bana egokitu die. Azkenik, Martin Tejeria esatariak, Maddi Oiherart kantariaren parte hartzearekin, liburuaren amaierako ipuina grabatu du audio-liburu batean.

Zuzenean Bizitzeko Gogoia
(DVD+CD)
Gatibu

Gatibu, Euskal Herriko talderik indartsuenak, DVD batean bildu du bere zuzenekorik indartsuena. CDak estudioko hiru abesti berri ditu.

Mystikal
Angel Alonso

Erdi Aroko fantasiaren tes-tuinguruan, Mystikal istorioak Eldyn aurkeztzen digu, azti apendiz gaztetxoa, trakets, baldar eta inozente samarra, akats "ñimiño" batengatik hil ala biziko borrokan murgildua dagoena. Egindako okerra zuzendu beharrez, Fira ninfa txikia izango du lagun. Bidean topatuko dituztenak ere lagun izango dituzte... edo etsai.

hitzorduak

Abenduaren 17tik urtarrilaren 21era bitarteko

Gazteen Jaialdia

Abenduaren 17an, Tolosako Leidor Aretoan, 19.00etan. Laskorain, Orixe, Hirukide ikas-tetxeetako ikasleekin batera antolatuta. BeldurBarik Tolosa lehiaketako sari banaketa.

Gazte Astea

Tolosako Gazte Topaguneak Gabonetan Gazte Astea antolatatu du:
Abenduak 26, Ping-pong eta futbolin txapelketa. 17.00
Abenduak 27, Wii eta Play Station, 17.00
Abenduak 28, Makillaje tailerra, 17.00
Abenduak 29, Euskal Selektzioaren partida irteera (Bilbo)
Abenduak 30, Txokolatada eta merendola

Mundu bat Tolosaldean

Abenduaren 17an, Tolosako Kultur Etxean, 19.00etan. "Agua viva" filme emanaldia.
Abenduaren 18an, Tolosako Leidor Aretoan, 19.00etan. "Amerikanuak" filme emanaldia.
Mundualitoaren finalerdiak, Tolosako Uzturpe kiroldegian.

Abenduaren 19an, Zerkausian. 16.00-18.00 bitartean. Denboraren bankua. Elkartrukearen merkatua eta mundu arteko elkartrukea. Haurtzaindegiz erbitzua.
11.00tan. Tolosako Usabal kiroldegian Mundualitoaren finala.

Azokak

Gabonetako Azoka Berezia. Abenduaren 18an, Triangulo Plazan, Plaza Zaharrea eta San Frantzisko pasealekuan, 08.30-14.00 bitartean. Era guztietako produktuak eskuragai: jakiak, artisaun produktuak. Animalierakusketak ere egongo dira.
Laskorain Ikastolaren Merkatu Txikia. Abenduaren 26tik urtarrilaren 5era, Tolosako Kultur Etxean.

Odol ateratzea

Abenduaren 20an, Tolosako Kultur Etxean, 18.30etan.

Gabonak eta haurrak

Olentzero. Abenduaren 24an, Oria ibaian behera, 17.30etan. Olentzero eta Mari Domingiren etorrera. Hurrei harrera Zerkausian.

Pailazo ikuskizuna. Abenduaren 26an, Tolosako Leidor Aretoan, 12.00 eta 17.00etan. Poxpolo eta konpainiaren 'Segi jotzen'.
Haur Parkea. Abenduaren 27tik 31ra, Zerkausian. 11.00-13.30 eta 16.30-20.00 ordutegian.

Kontzertuak

Eguberrietako Kontzertua. Tolosako Orfeoia. Abenduaren 22an, Tolosako Leidor Aretoan, 20.30etan.
Isidro Larrañaga Musika Eskolaren Eguberrietako kontzertua. Abenduaren 23an, Tolosako Leidor Aretoan, 19.30etan.
Tolosako Musika Bandaren Eguberri Kontzertua. Abenduaren 24an, Zerkausian, 12.00etan.
Tolosa Kantari. Abenduaren 25ean, Agirre doktoarearen plazan (Tontokale), 12.30etan.
Hodeiertz abesbatzaren eguberrietako kontzertua. Abenduaren 26an.

Bonberenea. 13. urteurrena

Okupazio eguna. Gustoko bidean aldaparik ez! Abendua-

ren 23an. 19.00etan txaranga kalejiran, 21.00etan afaria eta 00.00etan su artifizialak.
Futbolin txapelketa. Abenduaren 27an, 20.00etan.
Saskibaloitxapelketa. Abenduaren 28an, 10.00etan.



Indekitxen, Glaukoma Sound System eta Dolce Tanganaren kontzertua. Abenduaren 29an, 22.30etan.
Berri Txarrak. Urtarrilaren 14an, 22.30etan.
Split 77. Urtarrilaren 15ean, 22.30etan.
Bad Sound System, EKD (Japonia) eta Dandy djset (Japonia). Urtarrilaren 16an, 20.00etan.

Erakusketak

Tolosa-Baioneta eta Napoleon. Abenduaren 17tik 31ra, Aramburu Jauregian. 17.30-20.30 bitartean.

Hitzaldia

'Tolosa Munduan'. Abenduaren 20an, astelehenean. Mikel Telleria. Casino Elkartearen, 20.00etan.

Tolosaldean (IKASTN)

Bizitza osoan zeharreko ikaskuntza

Orain errazagoa da prestatzea. Prestakuntzarako eta horrekin lotutako zerbitzuetarako leihatila bakarra duzu.

<http://www.ikastn.com>

Eskualdeko ikaskuntzarekin erlazioanaturako informazio guztia ondorengo webgunean (langabetuentzako formakuntza, langileentzako formakuntza, bizitza osoan zeharreko ikaskuntzako jarduerak...)

Ikastaroaren izena	Hasiera data	Ordu Kopurua
Testu editorea, kalkulu orria eta datu basea	2011/01/12	40
Harreman pertsonalen kudeaketa (adimen emozionala)	2011/01/17	20
CAD 3D Modelatu eta Planoak (Solid Edge)	2011/01/17	30
CNC bidezko tornu bidezko programazioa (Fagor)	2011/01/17	40
Nominak eta gizarte segurtantza euskarri informatikoan	2011/01/17	40
Haur eta gazteen aisialdiko zuzendari ikastaroa	2011/01/22	100
Oinarritzko Photoshop	2011ko Urtarrila- Ekaina	40
Harremanetarako pertsona: Gemma Zelaia Kokapena: TOLOSALDEA GMLH INSTITUTUA Santa Luzia 17 -20400 Tolosa	Telefona: 943.65.11.47 edo 615.775.678 Posta-e: info@ikastn.com Webgunea: www.ikastn.com	

Goardiako farmaziak

Ostirala, 17 Iturrioz I. Euskal Herria, 3 Ibarra	Asteazkena, 22 Olarreaga M. (Martin J. Iraola, 10) Tolosa	Astelehena, 27 Olarreaga J. (Korreo kalea, 2) Tolosa
Larunbata, 18 Santamaria I. (Nafarroa etorb.2) Tolosa	Osteguna, 23 Tolosa M ^a Isabel (Kale Nagusia, 7) Tolosa	Astearte, 28 Azpiroz L. Amaroz 9 Tolosa
Igandea, 19 Bronte C. (korreo kalea 20) Tolosa	Ostirala, 24 Iturrioz I. Euskal Herria, 3 Ibarra	Asteazkena, 29 Bronte C. (korreo kalea 20) Tolosa
Astelehena, 20 Azpiroz L. Amaroz 9 Tolosa	Larunbata, 25 Echeveste Jesus M. (Gernikako arbola, 3) Tolosa	Osteguna, 30 Ugarte M ^a T. Euskal Herria, 46 Ibarra
Astearte, 21 Ugarte M ^a T. Euskal Herria, 46 Ibarra	Igandea, 26 Morant R. (Zabalarreta, 1) Tolosa	Ostirala, 31 Santamaria I. (Nafarroa etorb.2) Tolosa

Telefono interesgarriak

Alegia-Amezeta-Albaltzisketa-Albiztur	Gernikako Arbola,hitzor	943 006 900
Osasun zentroa	Amarozko dispensarioa	943 672 637
Altzo	Asunzion klinika	943 675 799
Medikua	(larrialdiak)	943 675 390
Anoeta-Alkiza-Hernalde	San Kosme San Damian	
Medikua	geriatrikoa	943 672 932
Baliarrain	Udaltzaingoa	943 675 858
Medikua	Ur eta Argia (Tolargi)	943 650 016
	Ur zerbitzuak (aberiak)	639 352 156
Berastegi-Elduain	lurreamendi egoitza	943 670 325
Medikua	Larrialdiak, Suhiltzaileak	112
Bidegoian	DYA	943 672 536
Medikua	Gurutze Gorria	943 674 888
Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gaztelu-Leaburu		943 651 425
Osasun etxea	Ertzantza	943 673 022
Ikaztegieta	Tolosa Gasa	943 675 320
Medikua	Lizartza	
Irura	Medikua	943 682 077
Osasun zentroa	Orendain	
Tolosa	Medikua	943 655 595
Anbulatorioa, larriald.	Orexa	
San Esteban, hitzordua	Medikua	943 682 228

KEY-LAN
SARRAILGINTZA
Nafarroa etorbidea, 13-behea
20400 Tolosa
Mobila: 670 417 922
Tel./Faxa: 943 650 313

ARTESANIA
ZUEN TZART
*eskuz esku
arrunta berezi bihurtu!*
GERNIKA, 4 TOLOSA
ARTESANIAZUENTZART@EUSKALNET.NET
TEL. 943 650 359

TINDATEGIA
KATZ
Laskorain kalea • TOLOSA
Tel.: 943 652 618

ARALAR KIROLAK
Laskorain, 7 • TOLOSA
Tel.: 943 654 916

Muxutruk

Lana

• Ordenagailuak konpondu eta eguneratzen ditut, datuen berreskurapenak merke eta etxerako zerbitzua. 644 453 621

• Ingeleseko klaseak bakarka edo taldeka. Maila desberdinak. Irakasle tituluduna. 664.16.02.68

• Sukaldari edo zerbitzari laguntzaile gisa lan bila nabil. Homologatutako titulua daukat. 671 44 66 15.

• Hortz-protetikotitutak lan bila. 671 44 66 15.

• Eguzkitza Sagardotegiak parrillarako, sukalderako eta zerbitzatzeko pertsona bana behar ditu. 660 654 317 (Jon)

Etxebizitza

• 60m²-ko pisua salgai Berazubín. Egongela handia, bi logela, sukaldea eta komuna. Beritua, berogailua, sartzeko prest. 616 278 843

• Orion pisu/apartamentua salgai, garaje eta guzti, zentruan. Hondartzatik 10 minutura. Harremanetarako telefonoa: 661304125

Salgai

• Igini markako akordeoia saltzen da. Tamainaz ertaina eta beltza. Berau eramateko gurditxoak opari. Telefonoa: 943.65.13.45 - 663.621.800

• Oruga karretila salgai. Honda HP 500, ia berria. 943.69.47.36 / 618.18.53.37

Horoskopoa

2011. urterako aurreikuspena



aries

Martxoak 21-Apirilak 21
Sekulako animo onez ekingo diozu urte berriari. Baliteke martxoa eta maiatza bitartean zailtasun egoerari aurre egin behar izatea, baina batzuetan beste urte ona izango duzu. Sinisten duzun oro lortuko duzu.



taurus

Apirilak 22-Maiatzak 21
Ez dituzu gatazkak gustuko baina ezta bidegabekeriak ere, indarrak atera eta sinisten duzuna defendatuko duzu. Urteko hasierako hilabeteak neketsuak egingo zaizkizu, astiro igaroko dira.



gemini

Maiatzak 22-Ekainak 21
2011 urteari proiektuz beterik emango diozu hasiera. Horrenbesteko gogoa duzu helmugara iristeko batzuetan galdu ere egiten zarela. Suminkor eta isolatzeko joera izango duzu, hala ere, arazoak konpontzen jakingo duzu.



cancer

Ekainak 22-Uztailak 22
2011 oso urte garrantzitsua izango da. Buruan dituzun proiektuak gauzatzen unea. Energiakz beterik eta lanerako gaitasun handiz egongo zara. Zure ideia onak onurak ekarri eta pertsonalki hazi egingo zaituzte.



leo

Uztailak 23-Abuztuak 22
Urte baikorra estreinatzen zara. Kontzeptuak dituzun kontuak irtenbidea izango dute. Maitasunean seduzituko duzu. Handinahia hizpide hobetu nahi izaten duzu, arrakasta inoiz baino gehiago zure helburuetan zehazturik dago, objektibitateari erreparatu iezaiozu.



virgo

Abuztuak 23-Irailak 22
Urduri zaude, zerbaiten bila zabilta, baina ez dakizu zehatzegi zeren bila. Urteari era nahasgarrian emango diozu hasiera, ziurtasuna falta zaizu. Maiatza aldera argia ikusiko duzu.



libra

Irailak 23-Urriak 22
Sorpresa urtea. Ezkor hasiko duzu, gogorik gabe. Hasierako hilabetetan adore faltan egongo zara, baina udaberri aldean sorpresa bat izango duzu. Itxaropenez bizi.



scorpius

Urriak 23-Azaroak 22
2011n emozio-egonkortasuna lortuko duzu. Lanean erakutsi duzun nekezintzasunak saria dakar. Perfekzionista zaren heinean hasierako hilabeteak neketsuak egingo zaizkizu, ahaleginak egiteko unea. Ekainetik aurrera aldaketak, arrakasta profesionala.



sagittarius

Azaroak 23-Abenduak 21
Garai txarrak pasa dira; baikortasuna eta zorte ona bizitzako alor ezberdinetan lagun izango dituzu. Lanbide kontuak konpondu egingo dira. Horrenbesteko energiak gehiegi gastatzeko joera ekarriko dizu.



capricornius

Martxoak 21-Apirilak 21
2011n zure helburuak eskuratzeko lanean jarraituko duzu. Batzuetan zure urduritasunak egoera zailak sortuko dizkizu. Urrietik aurrera espero ez dituzun arrakastak.



aquarius

Urtarrilak 21-Otsailak 20
Urte ezezkor hasiko duzu, tristura puntu batekin gainera. Ez ezazu itxaropenik galdu, pasako dira une horiek; apiriletik aurrera dena baikorkiango izango duzu.



piscis

Martxoak 21-Apirilak 21
Urte honetan zure gaitasunak proban jarriko dituzu, baita zure irmotasuna ere. Diziplinak kale egiten dizu eta hori sendotu beharko duzu. Martxotik aurrera aldaketa nabaritutako duzu, esperientzia onak azaltzen hasiko dira.

matilda
zure moda osagailu denda
Koroa Kalea, 3
Tolosa

Celeste Tarota
Osasun, maitasun, diru eta negozioetan aditua
Kontsulta pertsonalak eta telefonikoak
943 103 749 / 610 497 035

PLAN RENOVE LEIHOETAN

ALUMINIOZKO LEIHOAK
PVC - EZKO LEIHOAK
DESKONTU BEREZIAK

943 69 84 39

harria gresak
25 urte zure bainugela janzen
Neurrira egindako bainugelatan espezializatuak
Zelaeta, 1 Beasain (Gipuzkoa) Tel. 943 885 466
Emeterio Arrese, 7 Tolosa (Gipuzkoa) Tel. 943 245 200
www.harriagresak.com - beto@harriagresak.com

aldama_tapia
aholkularitza

Foruen Etorbidea, 7
20400_TOLOSA Gipuzkoa
Tel. 943 650 375
Faxa 943 655 206
gtolesa@aldamatapia.com
www.aldamatapia.com

POSITIVE POWER
C4=0g.CO₂

CITROËN C4 BERRIA
*E-HDI TEKNOLOGIA
MIKRO-HIBRIDOA

E-HDI MOTORRA / STOP&START / AURREKO ESE-
LEKIAK LUMBAR ELEKTRIKO ERREGULATUEKIN ETA
MASAJE FUNTZIOA / ANGULO HILARRAKO ZABINTZA
SISTEMA / ABIAZURA PROGRAMATZAILA ERRENT-
ZAT LURRATZAILA ETA ERREGULATZAILA / ERREGAI
KONTSUMOAN %15KO MURRIZKETA / 8 ABIAZU-
RAZ GIDATUTAKO ABIAZURA-KAKA MANTUA OPTI-
MIZATUEKIN / DEZELERAZIO TASEKO ENERGIAREN
ERREKUPERAZIO SISTEMA.

ITROVI, S.A. CITROËN KONTZESIONARIO OFIZIALA, INDUSTRIA GUNEA Z/G TEL: 943 65 18 42 ANOETA/TOLOSA



Komikia: Joseba Antxustegietxarte

HILETAREN BALIOA

Txina Inperiala



40 URTE | eman zituzten Qin Shi Huang enperadorearen hilobia eraikitzen

2,13 Km²
hartzen ditu guztira mausoleoaren azalerak

700.000 LANGILE
aritu ziren hori eraikitzen

7.000 IRUDI
lurperatu zituzten enperadorearen ondoan, benetako tamaina dute eta terrakotaz eginak dira

Funeraria Vascongadan ere pentsatzen dugu pertsona bakoitzak bere neurriko hileta izan behar duela. Horregatik, alor horretan lider garenez, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren **Hileta Zerbitzu Packak** eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Berreskurazina da galdu duzuna,
baina laguntza eskainiko dizugu dena errazagoa izan dadin.



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

25 años
en TOLOSA

www.funerariavascongada.com 24 orduko zerbitzua: 902 40 29 00

